



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_109719/20_08

Apirilaren 26an, *Tramitagune* tresna informatikoaren bitartez, **Kable Bidezko Garraioaren Lege-aurreproiektuaren** berri jaso dugu Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Aholkularitza juridikoak bidali eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 73/2021, otsailaren 23ko Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin-behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”.

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena apirilaren 7koa da eta, apirilaren 22koa zerbitzu juridikoaren txostena. Bete da, beraz, aipatu Dekretuak xede horrekin araututakoa.

Bestalde, hasieratik *Tramitagunen* zeuden Lege-aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko testuak; beraz, horrela eginda, bete egin zen abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua.



b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Lege Proiektuaren helburua da pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen proiektzioa, eraikuntza zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea, instalazio horiek oso-oso Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen badira, 1. artikuluan adierazten den moduan.

10. artikuluan erabiltzaileen eskubideak arautzen dira. Artikuluak bere 1. apartatuan esaten du kable bidezko garraio-instalazioen erabiltzaileek, kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko legerian aurreikusitako eskubideak dituztela. Alde horretatik, garraio-titulua eskuratu ondoren kable bidezko garraio publikoko instalazioak erabiltzeko eskubidea dutela aitortzen da.

10. artikulua 4. apartatuan esaten da kable bidezko garraio-zerbitzua ustiatzen duen erakundeak erreklamazio-liburua edo -orriak izan beharko dituela erabiltzaileen eskura, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera; liburu edo orri horien berri eman beharko du erabiltzaileek erraz irakurtzeko eta ikusteko moduko leku batean. Bestalde, 6. apartatuan esaten da herritarrei oro har zuzendutako abisuetan eta komunikazioetan euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatuko dela, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatuz.

123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoak, bere 5. artikuluan aipatzen du jendeari begirako establezimenduek idatzitako komunikazioetan dituzten hizkuntza-betebeharrak: euskaraz eta gaztelaniaz emango dituzte 5.1.c apartatuari jarraiki, jendearen eskura dauden inprimaki edo katalogoak, - enpresak berak zuzenean edo zeharka argitaratutakoak -, produktu edo zerbitzu bati edo gehiagori buruzko informazioa ematen badute. 5.1.d apartatuan aipatzen diren kontsumitzaile eta erabiltzaileek betetzeko diren inprimakiak ere gaztelaniaz eta euskaraz emango dituzte. Eta amaitzeko, 5.1.e apartatuan adierazitako atxikimendu-kontratuak, ereduzko klausulak dituzten kontratuak, kontratu arautuak, baldintza orokorrak eta horietan guztietan aipatzen diren edo horiei buruzkoa den dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Hau horrela izanik, Lege proiektuaren 10. artikuluan eskubide guzti hauek ere jaso beharko lirajtekeelakoan gaude.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria